

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Autonomoen enplegua sustatzeko laguntzen deialdi berriak 18 hilabetera murriztuko du jarduera mantentzeko betebeharra

*500.000 euroko laguntza da, eta Nafar Lansareak oinarriak aldatu ditu onuradunen kopurua handitzeko*

Astelehena, 2016.eko abuztuak 1

Autonomoen enplegua sustatzeko Nafar Lansareren diru-laguntzen deialdi berriak 500.304 euro emango dira, eta iragan ostiralean, uztailak 29, [argitaratu](#) zen NAO-n. Deialdiaren berritasun nagusi gisa, jarduera mantentzeko betebeharra 3 urtetik 18 hilabetera jaitsi da.

Gainera, lanbide-etapa berria errazteko, ez da beharrezkoa izango gutxieneko inbertsioa egitea, eta laguntzak bateragarriak izango dira helburu bererako jasotzen diren beste laguntzekin.

Eskakizun berriak aplikatuta, onuradunen kopurua handitzea, lehengo eskakizunek eragindako laguntza ez eskatzeko joera murriztea eta laguntza publikoa Nafarroan enpresak hasten dituzten pertsonetara egokitzea da NLren helburua.

Hori oinarri, onuradun bakoitzeko batez besteko laguntzen bidez, jarduerak irauten duen 18 hilabeteko denboraldian Gizarte Segurantzaren kostua ordaindu ahal izango da. 2.000 eta 3.500 euro ingurukoak dira laguntzak batez beste, onuradunaren kolektiboa zein den: oro har, gazteak, 45 urtetik gorakoak, iraupen luzeko langabeak, emakumeak, desgaitasunen bat dutenak, Gizarteratzeko errenta jasotzen dutenak edo genero-indarkeria jasan duten emakumeak. Diru-laguntzen batez besteko kopuruari esker, onuradun gehiago izango dira, aurreko deialdiekin alderatuta (5.000 eta 7.000 euro arteko laguntzak, gutxi gorabehera).

Eskaerak [aurkezteko](#) epea, ahal dela Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren erregistroan, hilabetekoa izango da, jarduera hasten den egunaren biharamunetik hasita, edo abuztuaren 30era arte, deialdia argitaratu aurretik Gizarte Segurantzaren izena eman dutenen kasuan. Azpimarratu beharra dago 3 hilabetetik hilabete batera txikitu dela eskaerak aurkezteko epea.

Langabetuak autonomo zein norberaren konturako langile egitea erraztea eta jarduera gutxienez 18 hilabetez mantentzea da deialdi honen xedea.

Diru-laguntza jasotzeko eskatzen dutenak Nafar Lansareko bulegoetako batean enplegu-eskatzaile gisa egon behar dira erregistratuta eta Gizarte Segurantzako edo kasuan kasuko profesionalen elkargoaren mutualitateko langile autonomoen araubide berezian alta hartuta egon behar dira. Kendu egin da hiru hilabetez jarraian langabezian edo aurreko

horietan izena emanda egoteko baldintza.

### **Ekintzailtza babesteko beste neurri batzuk**

Deialdi hau argitaratu dela eta, SODENA enpresa publikoak OINARRI, S.G.R. (elkar bermatzeko sozietatea) sozietatearekin akordio bat [sinatu duela](#) gogorarazi du NEZek, ekintzaileek eta enpresa txiki eta ertainek finantzaziorako duten sarbidea errazteko.

Akordioak bi jarduera-ildo ditu: lehena, enpresa txikiak eta autonomoak finantzatzea eta sendotzea eta, bigarrena, ekintzaileentzat. 25.000 eta 150.000 euro artekoak izan litezke emandako maileguak lehen kasuan, eta gehienez 50.000 eurokoak bigarreanean. Negozio-sustatzaileek OINARRIra bidali behar dituzte eskaerak. Finantzazioa eskatzeko baldintzak eta arqibideak [SODENA](#)ren webgunean daude.